Deba
ETORKIZUNA ORAIN

Debako Udala

# deba berri

2020ko OTSAILA 12. zbk.



## PINAKULU-KARSTAREN BEGIRALEKUA

# INGURUNEARI TALAIA BERRITIK SO EGIN

Debaberri 12
2020ko otsaila

## AURKIBIDEA

2 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Udaletxetik
3 . . . .Emergentzietarako etxebizitza
4 . . . . . . . . . .Cementerio de Artzabal
5 . . . . . . . . . . . . . .Itziarko Auzo Udala
6 – 7 . . . . . . . . . .Proyectos para 2020
8 – 9 Pinakulu-karstaren begiratokia
10–11 . .Entrevista a Yoana Azpitarte . . . . . . .Naveda, asesora de igualdad
12–13 . . . .Hegaztien monitorizazioa
14 - 15 . . . . . . . . .Memoria historikoa
16 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Martxoak 8
17 . . . . . . . . . . . . . . .Tene Mujika beka
18 . . . . . . . . . .Ordenanza de caminos
19 Mapa toponimikoa eta GIS bisorea
20 - 21 . . . . . . . . . . . . . . . . . .Laburrak
22 - 23 . . . . .Alderdi politikoen iritzia
23 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .Agenda
24 . . . . . . . .Elene Turrillas Rodriguez . . . . . . . . . .margolariari elkarrizketa

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

© Argitaratzailea: Debako udala.
Egilea: SharinF5 Kooperatiba
Azaleko argazkia: Aritz Loiola
Lege Gordailua: L.G. SS-918-2012



GILEN GARCÍA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

## DEBA BERRIA ERAIKITZEKO BIDEA URRATZEN

Aurreko Debaberrin, gure legealdiko lehenengoan, esan nizuen zuekin zuzenean komunikatzeko tresnak sortu eta indartu nahi genituela. Konpromisoa hartu genuen, Debaberri maiztasun jakinarekin zuen esku jartzeko, eta esana betez, hemen gara berriz.

Ale berria eta urte berria. Eta indarberrituta gatoz lehengo eta oraingo erronkei heltzeko. Udalean egin ditudan lehen hilabete hauek intentsuak izan dira, une batzuk besteak baino zailagoak, baina guztiak aberasgarriak eta ikasteko aukera eman didatenak.

Zurrunbilo bat baino gehiago izan dugu denbora tarte honetan, baina lasaitasunez hartu eta urratsak eman ditugu, etorkizun hobea eraikitzeko oinarri sendoa jarriko duten urratsak. Bai, besteak beste, hilerriaren kontuaz ari naiz. Gora beherak izan direla badakizue, baina zegokiguna egin dugunaren konbentzimenduarekin bideratzen joan da gaia, ale honetan bertan kontatuko dizuegunez.

Eta egin ditugunak zuekin partekatzen joan gara, legealdi hasieran esan genizuen moduan; izan albiste onak edota ez hain onak, denak.

Matazarik zailenak askatzearekin batera, aurrera begira ari gara lanean, etorkizuna orain bertan landuz.

Hemendik egun gutxira martxoaren 8a izango da. Egutegian morez markatutako egunak, sortu nahi dugun herriaren ezaugarri jakin baten inguruan hitz egiteko parada emango dit. Izan ere, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak apurtu eta pertsonen arteko berdintasunean oinarrituko den herria eraiki nahi dugu. Horretarako urratsak ematen ari gara udalean ere, bigarren berdintasun planaren lanketarekin. Eta aurten ere, kalera aterako diren emakumeek eta haien ondoan, bigarren lerroan egongo garen gizonok, urrats berri bat egingo dugu bide horretan.

## ABRIR CAMINO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE LA NUEVA DEBA

En el anterior número de Debaberri, el primero de nuestra legislatura, os dije que queríamos crear y reforzar herramientas de comunicación directa con la ciudadanía. Nos comprometimos a poner en vuestras manos Debaberri con una periodicidad determinada, y cumpliendo lo prometido, aquí estamos otra vez.

Nuevo ejemplar y nuevo año. Y venimos con fuerzas renovadas para afrontar los retos del pasado y del presente. Estos primeros meses en el Ayuntamiento han sido intensos, unos momentos han sido más difíciles que otros, pero todos enriquecedores y que me han permitido aprender.

En este tiempo hemos tenido más de una tormenta, pero nos lo hemos tomado con tranquilidad y hemos dado pasos que nos van a permitir construir un futuro mejor. Sí, entre otras cosas, me refiero al cementerio. Sabéis que ha habido altibajos, pero estoy convencido de que lo que hemos hecho ha ido encauzando el tema, como os contaremos en esta misma publicación.

Y hemos ido compartiendo lo que hemos hecho, tal y como os dijimos al comienzo de la legislatura, tanto las buenas noticias como las menos buenas.

Mientras desenredamos las madejas más difíciles, estamos trabajando en el futuro, desde ahora mismo.

En pocos días será 8 de marzo. El día marcado en morado en el calendario me da la posibilidad hablar de una determinada característica del pueblo que queremos crear. Queremos terminar con las desigualdades entre hombres y mujeres y construir un pueblo basado en la igualdad entre las personas. Para ello también estamos dando pasos en el ayuntamiento, con la elaboración del segundo plan de igualdad. Y un año más, las mujeres que van a salir a la calle y los hombres que vamos a estar a su lado en segunda fila, vamos a dar un paso más en ese camino.



# Gizarte larrialdi egoeran dauden pertsonak artatzeko baliabideak handituko dira

**En breve estará disponible una vivienda de urgencia social en Deba para personas que se encuentran en situaciones de emergencia social. Ésta se suma a la que ya se ofrece compartida con otros municipios de la comarca (Mutriku, Elgoibar y Mendaro) en Elgoibar. La vivienda podrá dar cabida a un máximo de tres unidades familiares y un total de siete personas como máximo.**

Debako udalak sei urterako eskuratu du herrian bertan dagoen aipatutako etxebizitza. Badago aurretik ere debarrek erabili dezaketen etxebizitza bat Elgoibarren (Debako sei familiek erabili dute orain arte). Azken hau erabiltzen jarraitzeko hitzarmena onartu da abenduko osoko bilkuran.

Orain dela hiru urte Gizarte Zerbitzuen Kartera berrikusi zen, honetan, EAEko oinarrizko zerbitzuak definitzen dira, zer dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiari, eskualdeari eta udalari. Eskualde azpian gutxienez larrialdietarako etxebizitza bat egon behar dela zehazten du. Debaren kasuan hori betetzen zen, baina Udaleko Gizarte Zerbitzuek egindako azterketa batean ondorioztatu zen ez zela nahikoa. Ondorio berbera eman zuen SIIS-ek egindako “Debabarreneko Udal Gizarte Zerbitzuen Mapa. Diagnostiko eta helburuen balorazioa” (2018ko maiatzean) lanak.

Udalak azterketa egin zuen unean (2019ko apirila), Deban, 60 familia zeuden pobrezia egoeran eta horietatik 24k zituzten adin txikikoak euren kargu eta alokairuan bizi ziren. Zaurgarritasun egoeran zeudela ondorioztatu zen, etengabe igotzen ari den etxebizitzaren prezioa eta etxebizitza eskaintza txikia aintzat hartuz.

Zeintzuk dira larrialdi egoerak? Bada, epai judizial irmoaren bidez agindutako etxegabetzea, adibidez. Gizarte Zerbitzuetan azaldu dutenez, gaur egun gertatzen diren etxegabetzerik gehienak, alokairuan dauden pertsonek jasaten dituzte, baita hilabeteroko kuotak ordainduta ere, etxeko jabeak prezioa igotzea erabaki ondoren, aurrerantzean ezingo diotelako hilabeteroko kuotari aurre egin.

Bestelako arrazoiak dira: eraikina aurri egoeran egotea; hondamendia, sutea edo uholdeak; familia arazo larriak izatea; edo behar bezala justifikatzen diren bestelako larrialdi egoerak.

Debako udalaren asmoa da etxebizitzaren gaiari heltzea eta jada lanean ari da aurrera begira eskuragarriak izan daitezkeen baldintzetan etxebizitza parkea handitzeko.









# Las obras del cementerio nuevo finalizarán en breve

*Gilen Garcia alkateak eta Aritz Larrañaga zinegotziak Ura Agentzian bilera egin zuten 2019ko abenduaren 2an Gasteizen.*

**Otsailaren amaieran bukatuko dira Artzabaleko hilerri berriko obra lanak, aurreikusi bezala. Ura Agentziak abenduan egindako aldeko txostenek amaiera eman diote arlo horri lotuta zegoen ziurgabetasun egoerari. Hainbat gorabehera izan da obra honen ibilbidean.**

Una denuncia realizada por la Fiscalía de Medioambiente en el Juzgado de Eibar sobre las obras del nuevo cementerio llevó al alcalde Gilen Garcia a paralizar la obra de forma cautelar, siguiendo la competencia que le otorga la Ley del Suelo. Puesto que esta denuncia generaba dudas sobre la legalidad de las obras, que no contaban con el permiso de la Agencia Vasca del Agua.

Esta denuncia se sumaba a las interpuestas anteriormente por Mutrikuko Natur taldea y un vecino, por ir supuestamente en contra del medioambiente.

Después de las gestiones realizadas por el ayuntamiento, siempre siguiendo las recomendaciones de los servicios jurídicos, en la Agencia Vasca del Agua, ésta envió una petición al ayuntamiento haciéndole unos requerimientos para poder hacer un informe favorable.

Teniendo en cuenta las características de la obra, el órgano de contratación es el pleno, por lo que se convocó un pleno extraordinario el 18 de noviembre. Con los votos de Debarren Ahotsa y EAJ-PNV el pleno decidió seguir adelante con las obras, EH Bildu, por el contrario se declaró a favor de mantener la paralización provisional.

Después de eso, el equipo de Gobierno ha mantenido diversos contactos con la Agencia Vasca del Agua y ha realizado en todo momento un esfuerzo para cumplir con las adaptaciones, trámites y solicitudes que se le han solicitado para que las obras del nuevo cementerio continuaran con las debidas garantías. Este esfuerzo ha permitido la correcta tramitación y cierre del proceso de los dos expedientes existentes en la Agencia Vasca del Agua.

En lo relativo a las actuaciones inicialmente previstas en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre, La Agencia Vasca del Agua da por finalizado el procedimiento, tal y como consta en la comunicación con fecha de salida del 4 de diciembre. Por otra parte, mediante comunicación con fecha de salida 19 de diciembre, se indica que el Ayuntamiento ha procedido a realizar las modificaciones requeridas en el proyecto en relación al manantial de Goiko-Solua. Y constatando que la obra no afecta al citado manantial, resuelve que la ubicación del cementerio es la adecuada. De este modo, la obra finalizará en breve.

**"Alkateak obra gelditzea erabaki zuen Ingurumen Fiskaltzak egindako salaketak zalantzan jarri zuelako obraren legaltasuna, Ura Agentziaren baimenaren faltan"**

**"Gobernu taldeak Ura Agentziarekin egindako hainbat harremanek eta honek egindako eskaerak betez, lortu da azken honek aldeko txostenak egitea"**



*Epe laburrean amaituko dira Artzabaleko hilerriko lanak. (Argazkia: Aritz Loiola).*

# Itziarko Auzo Udalak bost urte bete ditu



*2015eko ekainaren 20an egin zen lehen aurkezpena.*

**Dagoeneko bost urte beteak ditu Itziarko Auzo Udalak, 2014ko otsailaren 27an ofizialki eratu zenetik. Urtearen sasoi honetan ospatu izan du urteurrena jendartean harrezkero, egindako bidearen balioa gogora ekarriz. Bosgarrena zenbaki biribila da, esanahi bereziz jantzia. Gatazka, aurreiritzi eta gaizki ulertuak gainditzeko bidean, aurrera doa Itziarko Auzo Udala.**

Hutsetik abiatuta, erronka eta kontrakotasunei aurre egin eta instituzioa bizirautea izan da aurreneko legealdiaren lorpena. Egiteko horretan jarri izan ditu indarrak talde eragileak, barne antolaketa sendotuz eta auzotarrekiko konfiantza bereganatuz, hainbat ekimenen bitartez.

Bigarren legealdian sartuta, egonkortuz doa Itziarko Auzo Udala, eta bestelakoak lirateke helburuak. Barrura begirako lana gainditu eta entitatea dagokion esparruan kokatzea da lehentasuna, foru dekretuak egozten dizkion ahalmenak bere osotasunean garatuz. Horretarako ezinbestekoa da Debako Udalarekin elkarlanean aritzea, interes orokorreko proiektu eta asmoak batera garatzeko. Era berean, onuragarria da auzo udalak erakunde nagusiekin zuzeneko harremana ezartzea dagozkion alorretan, berezkoa duen nortasun juridikoaren ahalmenak baliatuz.

Hainbat ekimen eta proiektu ditu auzo udalak esku artean, iragan urteetako ezintasunak saihestu eta etorkizunari begira kokatuz jarduna. Horren lekuko da, bosgarren urteurrenaren aitzakian, Itziarko Auzo Udalak aurkeztu duen plangintza datozen urteetarako. Bertan, epe ertain eta luzean garatzeko hainbat asmo zehazten dira. Horietako zenbait gabezia egiturazkoak dira, lehendik jasotako egoeraren ondorio, eta nekez egin diezaieke aurre auzo udalak baliabide propioekin soilik. Horregatik, ezinbestekoa izango da Debako Udalaren babesa, eta erakunde nagusien lankidetza.

Bide honetan hainbat dira ekainaz geroztik emandako aurrerapausoak arlo ezberdinetan. Horren adibide dira, esaterako, industrialdeko ordezkariekin abiatutako elkarlana, edota Debemen elkarteko mahaian auzo udalak hartua duen aulkia.

Globalizazioaren garaian kohesio soziala eta komunitate izaera sendotzeko eredu baliagarria dela erakutsi du auzo udalak. Auzotarren beharrak bertatik bertara ezagutu eta irtenbideak elkarrekin bilatzeko, eta kalitatezko zerbitzuak jorratzeko. Orain arteko bideari jarraituko diogu aurrerantzean ere, beti ere garaietara egokituz; bidean ikasi duguna aplikatuz, eta herritar guztion onerako oraina eta etorkizuna landuz.

*Itziarko Auzo Udalaren Talde Eragilea*


Acto de presentación del Plan de Gobierno (Foto: Ander Salegi).

# 35 compromisos para 2020

## FORMAN PARTE DEL PLAN DE GOBIERNO DE 100 MEDIDAS

**El equipo de gobierno de Deba presentó en noviembre su plan de gobierno para la legislatura vigente. Un plan formado por 100 medidas concretas. Ahora, presenta la selección de las medidas que se compromete a cumplir este año.**

Esta selección de medidas son parte de los cinco ejes que conforman el plan de gobierno y se han seleccionado teniendo en cuenta diferentes factores.

En el primero de los cinco ejes, que se refiere a la organización municipal, se han elegido medidas tanto que tienen relación con la transparencia y la comunicación con la ciudadanía, como medidas meramente relacionadas con la gestión y organización del propio ayuntamiento.

El primer punto del plan de gobierno, es también el primero de estos 35 que se van a realizar este año: Realizar mejoras en el servicio digital Esan Udalari (solicitudes y quejas).

Se van a adoptar medidas para organizar y mejorar la gestión de las solicitudes y quejas que se reciban, para darles respuesta de manera adecuada y rápida. Aunque es un servicio que ya funciona en la actualidad, se pretende situarlo en un lugar más visible de la web del Ayuntamiento, y se pretende, también, optimizar la gestión de las respuestas.

En el segundo eje, referente a las políticas sociales, se va a trabajar por mejorar las condiciones de las ayudas asociativas y por otra parte, se va a dinamizar la asociación Arbil y consensuar un convenio.

En el eje referente al desarrollo local, entre otras cosas, este año se va a seguir trabajando en normalizar la relación con la Entidad Local Menor de Itziar. Así como fomentar la colaboración con el parque empresarial Itziar-Deba. Se va a trabajar la parte correspondiente a la gestión a realizar por el Ayuntamiento para el desarrollo del parque, en colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Se va a reforzar también la mesa de trabajo. Se van a realizar a su vez, mejoras en los edificios de los centros educativos.

En relación con la cultura y el patrimonio, se van a llevar a cabo acciones para promocionar el euskera, como, promocionar la colaboración con UEMA, ejecutar el Plan de Uso del euskera que define los criterios lingüísticos o Euskaraldia. Y en el ámbito de la cultura, entre otras cosas, se va a trabajar en la colaboración con la Kultur Mahaia para poner en marcha un espacio cultural en el municipio.

El quinto y último eje recoge las medidas correspondientes a igualdad y participación. En el primero, por ejemplo se va a realizar el segundo plan de igualdad. En el ámbito de la participación ciudadana, se va a poner en marcha la mesa sobre los residuos; se ha contactado con la dirección de participación ciudadana de la Diputación Foral de Gipuzkoa para impulsar la cooperación que permita estudiar y ejecutar distintos proyectos.

















# 2020RAKO GOBERNU PLANEKO NEURRIAK

## UDAL ANTOLAKETA

1. Esan Udalari (eskaera eta kexak) zerbitzu digitalaren hobekuntza egitea
3. Zerga biltzailearen postua udalekotzea
4. Udaltzain burua aukeratzeko hautaketa prozesua gauzatzea
7. Gazte lokalak arautzen dituen ordenantza adostu eta onartzea
8. Deba Musikal Patronatua eguneratzea
11. Udalerriko argiteria eguneratzea
16. Udal panelak gehitzea
17. Udalerriko mapa bisore eta GIS sistema ezartzea
19. Terrazei buruzko ordenantza eguneratu eta betetzea
21. Lokalak etxebizitza bilakatzeko ordenantza lantzea

## GIZARTE POLITIKAK

26. Arbil elkartea dinamizatu eta hitzarmena adostea
35. Herriko kooperazio taldeei diru laguntzak ematen jarraitzea
36. Herritarrei Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea

## TOKIKO GARAPENA

45. Itziarko auzo udalarekin elkarlana gauzatzea
46. Itziar-Deba enpresa parkearekin elkarlana sustatzea
49. Landa eremuko herri bideak babestuko dituen ordenantza lantzea
52. Hezkuntzari lotutako eraikin publikoetan beharrezkoak diren moldaketak egitea
63. Ifar kaletik Mogelerako pasabidea urbanizatzea

## KULTURA ETA HERRI ONDAREA

64. Arkeologia eta aurre-historia Deban
65. UEMArekin elkarlana sustatzea
66. Udalaren hizkuntza irizpideak zehazten dituen Erabilera Plana betetzea
69. Euskaraldia 2020
71. Zuhatza euskara elkartearekin elkarlana eta hitzarmena
74. Kultur-gune bat martxan jartzeko Kultur Mahaiarekin elkarlana sustatzea
77. Kultur eragileek diru-laguntzak jasotzeko oinarriak berritzea
80. Debako euskararen historia osatzea

## BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA

84. II. Berdintasun Plana garatzea
89. Berdintasunarekin zerikusia duten aldarrikapen egunak babestu eta lantzea
    Galdetegia osatu eta ekarpenak jasotzea
92. GFAko herritarren partaidetza zuzendaritzarekin elkarlana sustatzea
93. Komunikazio saila sortzea
95. Hondakinen mahaia martxan jartzea
98. Udalerriko puntu ilunak identifikatu eta diagnostikoa egitea
100. Legealdian zehar eta amaieran Gobernu Planaren balorazioa egitea



La construcción de un Mirador al Karst pinacular situado en el Camino Real, en un paraje de gran valor geológico, arqueológico y antropológico y por supuesto natural, posibilita tener una nueva atalaya para disfrutar de unas vistas espectaculares y desde una nueva perspectiva. Es parte de un proyecto desarrollado por el Ayuntamiento de Deba con el Geoparque de la Costa Vasca y la agencia de desarrollo Debegesa.

Kostaldetiko Santiagoko Bideko ibilbide ofizialak Debako hirigune historikoa utzi eta Sasiolako komentu zaharrera doan bidea jarraitzen du, Bide Zaharra edo Errege Bidea ere deitzen zaion herri-bidetik.

Bidearen zati honek historia- eta ondare-balio handia du; haitzulo eta aztarnategi asko aurki baititzakegu bertan (Ermitia eta Praileaitz, besteak beste). Zalantzarik gabe, balio geologiko, arkeologiko eta antropologiko altua du; baina gainera, natura eta paisaiagatik ere nabarmentzen da.



# Inguruneari talaia berritik so egiteko aukera pinakulu-karstaren begiratokitik

**“El nuevo mirador está situado en el corredor ecológico Arno Izarraitz, donde se encuentra una vista espectacular del Karst pinacular de Mutriku-Deba”**

**“Este entorno que forma parte del Camino de Santiago tiene un gran valor histórico y patrimonial”**

Horregatik hain zuzen ere, Debako Udalak Euskal Kostaldeko Geoparkearekin eta Debegesa garapen agentziarekin batera, ondasun kultural horren balioa nabarmentzea erabaki du, historiaurrearen inguruko eta ikuspegi turistikoa duen proiektu baten bidez: Deba, historiaurreko bailara. Horrek, Debatik Sasiolara doan Santiago Bidearen ibilbidea balioan jartzea ere badakar.

Begiratoki berri hau, Arno Izarraitz korridore ekologikoan, Mutriku-Debako pinakulu-karstaren ikuspegi ikusgarria dagoen tokian (GIL 63, Geologia interesdun lekuen inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan) kokatuta dago, Goikoetxe baserriko lurretan, bertako lurjabeek lagata.

Egitasmoa Eusko Jaurlaritzaren ingurumen sailak Euskal Kostaldeko Geoparkea elkarteari emango dion diru-laguntzaren bidez finantzatuko da.

# "La igualdad entre mujeres y hombres es algo a construir entre todas y todos, de ahí el interés de la implicación de diferentes agentes"

**Debako udalak lehen berdintasun planaren (2008-2011) balorazioa egin berri du eta bigarrena prestatzen ari da. Yoana Azpitarte Berdintasun Teknikariaren ustez, lehen plana ez zen errealista izan eta ondorioz, gauza asko bete gabe geratu dira. Bigarren plana, elkarlanean oinarrituta egongo da, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna pertsona eta eragile desberdinen artean eraiki behar baita. Otsaila eta martxoa artean bilera irekiak egingo dira.**



### El Ayuntamiento de Deba acaba de realizar la valoración del primer plan de igualdad ¿qué puedes contarnos?

La idea ha sido conocer en qué medida se ha ido incorporando la perspectiva de género en la gestión municipal. Es decir, conocer el grado de implementación del I plan de igualdad.

Para ello se han ido evaluando las acciones realizadas desde el 2008 hasta la actualidad, aunque la vigencia del primer plan finalizó en el 2011.

Para la recogida de la información se han utilizado diferentes técnicas, se han realizado entrevistas individuales al personal técnico del ayuntamiento, se ha realizado en encuentro con la comisión de igualdad y política feminista y se ha tratado de recoger tanto la opinión del personal político como de la ciudadanía en general a través de cuestionarios.

En torno al cuestionario dirigido a la ciudadanía, se llevó a cabo entre noviembre y diciembre y se recogieron un total de 50 respuestas, de las cuales 39 fueron de mujeres, 9 de hombres y dos, de dos personas no binarias.

### Como responsable del área de igualdad ¿qué valoración haces?

Que en realidad, se ha hecho una labor de sensibilización importante, y que se han ido dando algunos pasos en políticas de igualdad pero que aún quedan muchos pasos que dar, como por ejemplo; reforzar el propio servicio de igualdad creando una plaza de igualdad con una técnica de igualdad al frente, al menos a media jornada, dotar de mayor presupuesto a la comisión para, por un lado, seguir sensibilizando y formando, tanto a la ciudadanía, como al personal técnico y político del municipio; por otro lado, para seguir conmemorando las diferentes campañas que se llevan adelante desde el servicio además de valorar la posibilidad de crear una escuela de empoderamiento en el propio municipio y para seguir reforzando las relaciones con el tejido asociativo y con los diferentes grupos de mujeres y grupo feminista de Deba.

### ¿Qué situación os habéis encontrado?

Nos hemos encontrado con un plan muy ambicioso y no adecuado a la realidad de Deba, por lo que la mayoría de las acciones de dicho plan no se han podido llevar a cabo. Un plan de esas dimensiones requeriría de mayores recursos económicos y humanos, por lo que la evaluación ha resultado ser negativa.

### Después de dar por finalizado este primer plan, el Ayuntamiento está preparando el segundo.

En base a la evaluación del primer plan se está elaborando el segundo plan. Este plan tiene por objetivo ser un plan más adecuado a las necesidades y a la situación concreta de Deba. El II plan será una herramienta para seguir incorporando la perspectiva de género en la gestión municipal además de que nos sirva de guía para seguir reforzando y creando



las estructuras y mecanismos necesarios para ir avanzando en las políticas de igualdad a nivel municipal.
En relación al proceso de elaboración del II plan, se empezó a contrastar el primer borrador con el personal técnico del ayuntamiento en torno a enero, tras finalizar este contraste con el personal técnico se va a iniciar entre febrero y marzo un proceso participativo a través de 2 grupos de trabajo.
El primero estará dirigido exclusivamente a las mujeres y movimiento feminista y el segundo estará dirigido a toda la ciudadanía en general incluyendo el tejido asociativo y diferentes entidades municipales.
Para finalizar todo este proceso se presentará lo recogido al personal político en torno a marzo y el documento definitivo será presentado a la ciudadanía tras el visto bueno de Emakunde.
Los documentos definitivos de evaluación y II plan, se colgarán en la web para que estén al alcance de la ciudadanía.

**Yoana Azpitarte Naveda (Zarautz, 1979). Asesora de igualdad del Ayuntamiento de Deba.**

“Otsaila eta martxoa artean partehartze prozesua abiatuko da lanerako bi talderen bitartez”

“II Berdintasun Plana genero ikuspegia udal kudeaketan txertatzen jarraitzeko tresna izango da”

**¿En tu opinión cuál es el reto para los próximos años como sociedad, para poder construir un futuro basado en la igualdad entre hombres y mujeres?**
El reto está en la educación, en la sensibilización, y en la medida en que eduquemos a la ciudadanía en valores relacionados con el respeto, la igualdad y la diversidad de ser y estar viviremos en espacios más amables y la convivencia entre unas y otros mejorará.
La igualdad entre mujeres y hombres es algo a construir entre todas y todos, de ahí el interés de la participación e implicación de diferentes agentes (personal trabajador del ayuntamiento, representación política, diferentes entidades municipales, tejido asociativo, grupos feministas, movimientos LGTBI, ciudadanía en general,…) en la construcción de un futuro basado en esos valores.



*Mendata Institutuko eta Luzaro Eskolako ikasleei ingurumen hezkuntza saioa eskaini zitzaien.*

# Debako itsasadarreko hezeguneetan hainbat jarduera egin dira

**En Deba contamos con diferentes tipos de humedales: Artzabal, Casacampo e Irarrazabal, entre otros. El objetivo del Ayuntamiento ha sido ponerlos en valor. Con las ayudas de los Departamentos de Medioambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, se han desarrollado diferentes actividades en los humedales, con el objetivo de conocer la situación ecológica, proponer mejoras y realizar actividades educativas relacionadas con el medioambiente.**



Hegaztien monitorizazioa edo inbentarioa eta txorien eraztunketa zientifikoak izan dira egindako lanetatik aipagarrienak. 2018ko abenduan hasi eta 2019ko abendua bitarte egin du hegaztien inbentarioa Pako Zufiaur Gonzalez de Langarica ornitologoak.

Inbentarioa egiten ari zela, Benarriz arrunta (Acrocephalus schoenobaenus) eta Ur benarrizari (Acrocephalus paludicola) jarraipen zehatzagoa egitea erabaki zen, lehenengoa (Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan desagertzeko zorian azaltzen dena) Artzabalgo eremuetan ugaltzen ote den baieztatzeko eta bigarrena bere migrazioan Debako ihitokian atsedena hartzen ote duen jakiteko. Jarraipen hori abuztuan egin zen eraztunketa zientifikoen bitartez.



*Luzaro Eskolako laugarren mailako ikasleek zuhaitz landaketak egin zituzten.*

Bestalde, udazken hasieran, herriko ikasleei (Mendata Institutuko bigarren mailakoei eta Luzaro eskolako laugarren mailakoei) eta herritarrei zuzendutako ingurumen hezkuntza saioak egin ziren Artzabalgo guneetan eman ziren eraztunketa zientifikoen saioen bitartez. Txorien ezaugarriak eta jokaerak ezagutu zituzten parte hartzaileek.

Hainbat emaitza eman dituzte aipatutako lanek. Besteak beste, urte osoan zehar 100 espezie desberdin identifikatu dira. Kopurua aipatzeko modukoa da, azterketa-eremuaren azalera txikia dela kontuan hartuta. Datu honek Debako hezeguneen kalitatea berresten du.

Nabarmentzekoak dira, halaber, negu-pasa egin duten txorien kopurua: Txonta arruntak, Txantxangorriak edota Tuntun txoriak. Espezie urriei dagokienez, Arrano arrantzalea, Zikoina beltza, eta Lertxun gorria, bezalako espezieak agertu dira. Kanpokoak diren hiru espezie aurkitu dira: Beltxarga zuria eta beltza eta Niloko antzara.

Neguan hegazti guztien artean Zingira berdantza egotea azpimarratzekoa da (Emberiza schoeniclus schoeniclus). Hegazti hau arraroen artean jasota dago Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan.

Abuztuan egindako eraztunketa saioetan, guztira 25 espezie desberdineko 256 hegazti harrapatu dira. Horietatik 243 eraztuneztatze egin ziren.

Zuhaitz landaketak ere egin dira. Casacampo gunean lehortutako 40 bat zuhaitz moztu eta 120 bat landatu dira, gunerako aproposak diren espezieak, esate baterako: intsusa, erramua, gorostia, sahatsa... Luzaro eskolako 4. mailako ikasleen laguntzarekin egin zen.

Urmaelen egoera ekologikoa ere aztertu da, baina azterketa sakonagoa egin behar da emaitzak izan aurretik.

2020. urtean ere ildo honetan jarraituko du udalak lanean. Kanpo hegaztien populazioa kontrolatzeko ekimenak egingo dira; Mendata eta Luzaroko ikasleentzat eta herritarrentzat eraztunketa saioak egingo dira; Artzabalgo urmaelen egoera ekologikoaren azterketa sakona egingo da; eta paduren eta bertako hegaztien informazioa dituzten panelak jarriko dira.

**“La monitorización de aves o inventarios y anillamientos científicos de pájaros han sido los trabajos más destacados”**

# Gaur egungo egoera askoren zergatiak argitzeko beharrezkoa da memoria historikoa berreskuratzea

**Xabier Laka y Jose Luis Albizu partieron de los hechos ocurridos en Deba e Itziar en las primeras décadas del siglo XX para empezar a elaborar la memoria histórica de Deba, a la vista de que en los pueblos de la zona ya habían comenzado con estos trabajos. En el año 2006, con motivo del 70 aniversario de la entrada del ejército fascista en Deba, con la colaboración de Zuhatza, se editó una revista con el objetivo de dar a conocer la sociedad y los hechos de la época. Trabajan para recuperar la memoria y construir la conciencia de nuestro pasado.**



*Jose Mari Irustaren omenez, hainbat ekimen egin zen. Erakusketa inauguratu zen Udaletxean 2019ko azaroaren 13an.*

Historiaren kontakizun batetik abiatuta, gaur egunean garrantzi berezia duten gaiekin lotzen dituzte gertakariak. Errefuxiatuak, aporofobia edo desberdinari gorrotoa eta mesfidantza izateko joera ez dira oraingo kontuak. Gizartean ziklikoki errepikatu diren kontuak dira guztiak, gure aiton amonek bizitakoak era gordin batean. “Antolatu izan ditugun ekitaldi guztietan iragana eta orainaren arteko loturak azpimarratu izan ditugu beti”, diote.

## MEMORIA BERRESKURATZEA HELBURU

Memoria berreskuratu eta gure iraganaren kontzientzia eraikitzea dute helburu. Informazio asko galdu da garai hartako lekukoak joan direlako jada. “Hutsune hori dokumentazio bitartez estaltzea historiaren parte bat kontatzea bezala dela esango genuke. Gure senideen bizipenak eta sufrimenduak ezin dira data eta gertakari soiletan azaldu”.

Enpatiaren garrantzia nabarmentzen dute Deba eta Itziarko gizarteak garai batean jasan zuena ulertzeko orduan. Era berean, garai bateko mamuak berpizten ari direla uste dute. Iraganeko gertakariek ondo baino hobeto erakusten digute bazterkeriak, desberdinarekiko mesfidantzak edo errefuxiatuen uholdeak ez direla egun batetik bestera sortutakoak, prozesu baten ondorioak baizik, Albizu eta Lakaren hitzetan. “Herri honen historia erbesteratu eta migratzailez betea izanik, haienganako begiruneak behartu beharko gintuzke gaur egungoei begirune bera izaten”.

Gure iragana, nahiz eta ondo ezagutu ez, oraina baldintzatzen ari da Laka eta Albizuren ustez. Bere konplexutasunean, ulergaitza izanda ere, gaur egungo egoera askoren zergatiak argitzeko baliagarria den tresna da memoria berreskuratzea, “zenbat eta informazio, bizipen eta gertakari gehiagoren berri izan, helduleku gehiago izango ditugu gure norabidea finkatzeko orduan”.

Gure gizartea garai ilun haietan borrokatu zuten guztiekin zorretan dagoela aldarrikatzen dute, batzuek aberriaren alde, besteak Errepublikaren alde, baina guztiek egin zioten aurre faxismoari eta langileriaren zapalkuntzari. Amore ez ematearren erbestea eta kartzela ezagutu zituzten, errefuxiatuak izan ziren Europa eta Ameriketan zehar. “Haiek jasan zutenak balio behar du gurera datozen errefuxiatuak errespetatu eta ulertzeko”.

**Las personas o eventos concretos son el punto de partida para dar a conocer el pasado**

## PERTSONEN BIZIPENAK EZAGUTUZ IRAGANA ULERTU

Gehienetan pertsona edo gertakari konkretu batetik abiatzen dute lana, bere garaiko bizipenak eta gizartea ezagutarazteko asmoarekin. Polentzi Markiegi, II Errepublika, Gerra Zibila, errefuxiatuak, Gurseko Konzentrazio Zelaia edo Jose Mari Irustaren Mauthausenerako bidea izan dituzte aztergai, ez gertakari soil modura, baizik bizipen eta borroka baten lekuko gisa.

Polentzi Markiegi eta gudari guztien omenezko oroigarria, Gurseko Konzentrazio esparrura egindako bidaia, Gerra Zibilean indar faxistek egin zuten ibilbidea edo Amabirginaren errebueltan lurperatuta dauden milizianoen gorpuen bilatze lanak zerbait erakutsi dutela ziur dira: “Kontatu gabeko istorio asko gelditzen direla gure herrian. Udalak, Aranzadirekin batera egindako lanak bide berriak zabaltzeko informazioa argitu digun arren”.

Elkarlana dute lanerako ezaugarri nagusia. Diotenez, beti saiatzen dira, hortaz, ahalik eta talde desberdin gehienen babesa lortzen. “Memoriaren kontua ez da jarrera politiko jakin batek burutu beharreko lana; herritarron lana da eta horrela ulertzen dugu. Debako Udalak beti eskaini izan digu bere babesa era batera edo bestera, instituzioak ere parte hartu behar dutelako ekimen hauetan; horrek beste sendotasun bat eman izan die guk proposatutako ekimenei.”

## JOSE MARI IRUSTA GOGOAN

Jose Mari Irustaren omenez azaroan egindako ekitaldiak bereziak izan direla aipatu dute. “Alde batetik datak borobilak izan direlako, bere jaiotze eguna eta heriotzarena gogoratu ditugu pasa den urtean. Mauthauseneko Kontzentrazio Esparrua askatu zutela 75 urte bete dira. Jose Marik ez zuen askapena ezagutu, baina Etxahun Galparsorok emandako hitzaldiak ondo baino hobeto gogorarazi zigun zeintzuk ziren bere gogo eta kezkak. Herritar honek jasan zuen basakeriak zer pentsa eman beharko liguke”.

Talde desberdinen arteko elkarlanari esker burutu zen ekitaldi sorta, “Debadezine, Amical Mauthausen edo La Ilusion bezelako erakundeekin lan egiteak, ekimena bera aberasteaz gain, jende desberdinengana hurbiltzeko bidea erraztu izan digu. Debako Udala eta Itziarko Auzo Udala babesle modura izateak, baliabide gehiago eskaintzeaz aparte, Memoria Historikoa bete behar instituzionala ere badela azpimarratzen digute”.



Ekimen ugari antolatu da azken urteotan bezala (Argazkia: Ander Salegi).

# Emakumeen borroka bizirik

**El 8 de marzo está a la vuelta de la esquina. Día Internacional de la Mujer Trabajadora, día que tiene como objetivo incidir y reivindicar la importancia de actitudes y acciones personales que promueven la igualdad en la sociedad. Este año, viene repleto de actos lúdicos y reivindicativos, organizados en colaboración por distintas entidades locales y el Ayuntamiento.**

Berdintasunak, gai transbertsala izanik, bizitzako eremu guztiak hartzen ditu bere gain. Baina harremanen, genero rolen, indarkeriaren eta emakumearen ahalduntzearen inguruko lanketan eta sentsibilizazioan zer landu badagoela bistakoa da. Horrela bada, emakumeak erdigunean jarriz eta gizartea sentsibilizatuz, eremu sozialean emakumeen parte-hartzea areagotzea da helburu nagusienetako bat.

Azken bi urteetan martxoaren 8an egin diren greba egunek arrakasta izugarria izan dute, eta aurten ere, igandea suertatu den arren, Deban egitarau oparoa osatu dugu elkarlanean, Iruleak emakume pilotari taldea, Dunamis elkartea, Kultur Ekin ekimena, Debako talde feminista eta Udalaren artean. Hala nola, tailerrak, antzerki eta film emanaldiak, pala txapelketa, haur eta helduei zuzendutako ipuin-kontaketak... Gainera, urtean zehar ere hainbat tailer eta jardunaldi antolatuko dira, emakumeen ahalduntzea helburu izango dutenak.

Martxoaren 8a aldarrikapenerako eguna bihurtu den arren, egunerokoan islatu, landu eta kontuan izan beharreko gaia da.

## M8 EGITARAUA:

### Martxoak 3, asteartea

**19:00etan**, helduentzako ipuin saioa, *Baubo* (Kontukantoi-Beatriz Egizabal), Agirre jauregiko Ispiluen Gelan.

### Martxoak 6, ostirala

**22:00ean** *Me Too* antzerkia, Kultur Elkartean.
(Antolatzailea: Debako Udala Kultur Ekin ekimenaren baitan.

### Martxoak 8, ostirala

**Goizean zehar tailerrak eta pala azkarren txapelketa**

**12:30ean** manifestazioa Foruen plazan.

**14:00etan** herri bazkari autogestionatua (bakoitzak berea etxetik ekarri).

**18:50ean** *Rosario III*-ren emanaldia.

**19:00etan** berdintasun inguruko pelikularen proiekzioa, Kultur Elkartean.

### Martxoak 11, asteazkena

**18.00etan,** tailerra, *reirse para vivirse.* Agirre jauregiko Ispiluen gelan.
Dinamizatzailea: Ana Eguizabal
(Antolatzailea: Dunamis elkartea)

### Martxoak 12, osteguna

**19:00etan,** helduentzako antzerki emanaldia, *Trabajos de Interior* (Behibis Teatro -Antzerkia). Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

### Martxoak 15, igandea

Haurrentzako berdintasunaren inguruko ipuin-kontaketak Agirre jauregiko Ispiluen gelan.

**17:00etan,** 3-7 urte bitartekoentzat.

**18:00etan,** 7-12 urte bitartekoentzat.

Ipuin kontalariak: Debako kontalariak.

# Bilboko txabolismoa aztertuko du Iñigo Lopez Simonek Tene Mujika bekari esker

**El historiador bilbaíno Iñigo López Simón ha sido el ganador de la beca Tene Mujika de 2019, con un proyecto que va a analizar el chabolismo de Bilbao de mediados del siglo XX.**

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko beka honek. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Lopezena eman du irabazletzat Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea izango du historialariak lana burutzeko, gero liburu gisa argitara dadin.

1950etik aurrera hazkunde ekonomiko handia gertatu zen Bilbo aldean eta beste zenbait inguru industrialetan. Extremadura, Galizia edo Gaztelako landa-lurretatik samaldaka iritsi ziren gizon-emakumeak, baina garaiko agintariek ez zituzten azpiegiturak abiada berean prestatu, eta etxebizitzen gabeziari aurre egiteko etxolak eraiki behar izan zituzten migratzaile haiek. Horrela sortu ziren txabola-auzoak Bilboren inguru osoan.

Iñigo Lopez Simon 1984an jaio zen Basaurin. Historian doktorea da, hiri-marjinalitateari eta gazte-delinkuentziari buruzko testi batekin, eta Otxarkoagako txabolismoaz ere idatzi izan du. Hauxe izango du arlo akademikotik kanpoko lehenbiziko argitalpena.



*Argazkia: Paula Blanco Vázquez*

**Aurreko urteetako irabazleak eta lanak:**

**2018**

- Eneko Aizpurua (Lazkao, Gipuzkoa, 1976).
- Bidasoa pasabide naturala da, baina baita bi estatu bereizten dituen muga ere, eta horrek esanahi berezia eman dio historian zehar, era askotako gertakarien lekuko eta kokaleku bihurtu baita, besteak beste: Guardia Zibilak Intxaurrondoko kuartelean heriotzaraino torturaturiko Mikel Zabalzaren gorpua Endarlatsan agertu zenekoa; handik zenbait urtera ETAk paraje berean Eduardo Lopez polizia bonba batez hil zuenekoa...
- Udaberrian aurkeztuko da Deban.

**2017**

- Kattalin Miner (Hernani, Gipuzkoa, 1988).
- “Moio. Gordetzea ezinezkoa zen” izenburupean argitaratu zen liburua. Kazetaritza lana osatu du idazle hernaniarrak, Aimar Elosegi Ansa bere buruaz beste egin zuen gazte transexualaren auziari berriro helduz hamabi urteren buruan. Prisma eta ikuspegi desberdinetatik begiratu dio gaiari, laguna zuen hura oroitzeko beste helduleku bat lortuz.
- 2019ko maiatzean aurkeztu zen Donostian.
- 2020ko udaberrian aurkeztuko da Deban.

**2016**

- Jon Alonso (Iruñea, Nafarroa, 1958).
- Jose Migel Etxeberria "Naparra"ren kasua aztertzeko egitasmo batekin irabazi zuen beka Alonsok. Liburua 2018rako bukatua bazegoen ere, kasuaren inguruan judizialki zerbait gertatu ondoren argitalpena atzeratzea eskatu eta hala onartu zitzaioan.
- 2020ko udazkenean aurkeztuko da.



> "Gure inguruak landa eremuak izanik, bide horiek babestu eta baserrien arteko loturak ziurtatzea du helburu lantzen ari garen arautegiak"

*Ordenantzaren helburua azken urteotan eragindako kalteak saihestea da. (Argazkia: Aritz Loiola)*

# La ciudadanía colabora en la elaboración de la ordenanza para la protección de los caminos públicos rurales

**Herri bideak egur ustiapen, betelan, eta abarren aurrean babesteko araudia lantzen ari da Debako Udala, Itziarko Auzo Udalarekin elkarlanean. Baso lanetarako makina handiak eta pisutsuak erabiltzen dira eta hormigoizko bideak ez daude edozer jasateko eginak. Bilera irekien bitartez herritarren ekarpenak jaso ondoren, beharrezko tramite administratiboak egin, eta ondoren eramango da ordenantza osoko bilkurak onar dezan.**

Entre finales de noviembre y comienzos de diciembre se realizaron cuatro reuniones abiertas en el casco de Itziar, Lastur, Elorrixa y en el centro de Deba, en las que participaron más de cien personas. Tras hacer la presentación de la propuesta de ordenanza, se dio un mes de plazo para realizar aportaciones, que se trataron en otra reunión abierta que se llevó a cabo en Itziar.

Después de integrar las aportaciones realizadas por la ciudadanía, en el mes de febrero se va a tratar en la comisión de desarrollo rural, en la de régimen interno y hacienda. Una vez pase esos trámites se llevará al pleno. Una vez la apruebe el pleno se abrirá un mes para alegaciones.

"El objetivo de esta ordenanza es evitar los daños que en los últimos años se están produciendo en los caminos rurales como consecuencia del aumento de la explotación del pino. Las personas que trabajan en la madera tienen cada vez maquinaria mayor y más pesada para acelerar y facilitar el trabajo, y los caminos de hormigón no están construidos para soportar tanta carga", explica la concejala de Promoción económica y Desarrollo rural Nerea Arrizabalaga.

"Creemos que las medidas que ahora se quieren adoptar responden a una necesidad concreta, en este preciso momento éste es el problema que necesita una solución, tenemos claro que más adelante saldrán otras y que la ordenanza se irá completando y concretando".

Nuestro pueblo es un territorio amplio, atravesado por numerosos caminos, pistas y carreteras. Las principales carreteras dependen de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que es la encargada de su reparación y mantenimiento. Pero hay más de cincuenta kilómetros de caminos rurales y otros y son responsabilidad del Ayuntamiento. Se ha elaborado un inventario del estado de estas vías y en los últimos años se han realizado importantes inversiones en reparaciones.

"Nuestro entorno es en gran medida zona rural y debemos proteger estos caminos y asegurar las conexiones entre caserios", según Arrizabalaga.



# Debako udal mapa toponimikoa, GIS azpiegitura eta mapa bisore interaktiboa lantzen ari da Udala

“Se pondrá a disposición de la ciudadanía un visor interactivo que permita recoger la ubicación exacta de cualquier lugar.”

“Se va a desarrollar una infraestructura GIS a medida de la oficina técnica municipal.”

*2020 urtean zehar garatuko dira mapen lanak. (Argazkia: Aritz Loiola)*

**El Ayuntamiento de Deba, a través de la empresa Gislan, ha puesto en marcha los trabajos de elaboración del mapa toponímico municipal de Deba, la actualización de la información geográfica, el visor interactivo de mapas y el Sistema de Información Geográfica (SIG). Los trabajos se van a realizar durante todo el año 2020.**

Aurreko mapa toponimikoa 1999koa da. Honek udalerriko auzo, baserri, mendi, tontor, erreka, errepide, kale edota intereseko elementuak jasotzen ditu. Baina, informazio hori guztia paperean jasota dago soilik. Orain, urrats bat eman eta aipatutako datuak formatu digitalean jasoko dira, geoerreferentziatuak izango dira, hortaz.

Lan hori eginda, herritarren eskura egongo da mapa bisore interaktibo bat, non udaleko web orritik abiatuta, aukera egongo da, kontsultatzeko Maruko erreka, Arbil mendia edota Ekaingo kobazuloen kokapen zehatza eta beste hainbat elementu, adibidez.

Era horretako datuak eskaintzeaz gain, teknikoki lan egiteko interesgarriak suerta daitezkeen beste asko ere egongo dira eskuragarri. Adibidez, hauen bitartez, ikusi ahal izango dira, elektrizitate, ur eta gas hoditeria, berdeguneak, edukiontziak, ibilbideak, argiteriaren puntuak, ondare arkeologikoak, etab. GIS (Geografia-informazioko Sistema) azpiegiturara bulkatuko dira. Hau da, udaleko bulego teknikoaren neurrira egindako GIS azpiegitura garatu eta gauzatuko da. Honek, aipatutako arloren batean arazoren bat dagoenean, erraz eta azkar detektatzeko aukera emango die teknikariei.

Toponimiari dagokionez, udalak ez duenez inongo ikerketa toponimikorik, gaur egun jasota dagoena hobetzea izango da helburua. Horretarako, herritar batzuen lankidetza ezinbestekoa izango da eta proposamena luzatuko zaie parte har dezaten. Edozein kasutan, toponimiari dagokion guztia, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik pasako da ondoren.

Urtarrilean abiatu da lana, datu bilketa egiten. Toponimiaren lanketa ere abiatu da. Aurreikusi da urte osoa behar izatea lanak amaitzeko.



## Apakin Guraso Taldea sortu da

Euskararen erabilera sustatzea du helburu talde sortu berriak. Joan den urte bukaeran udalak haur eta gazteen euskararen erabileran urratsak emateko familietatik egin zitekeenaz hausnartzeko deialdia egin zuen. Erabilerarekiko gurasoen kezka agerian geratu zen, baina ez ziren horretan gelditu eta ordutik hilero bilerak egiten jarraitu dute.

Azken asteotan, herriko paretetan hainbat kartel ikusi da, lehenik portzentaiak zituztenak soilik eta ondoren gero eta azalpen gehiagorekin. Guraso talde honek herriko plazan euskararen erabilera neurtzeko egindako azterketaren emaitzak ziren zifra horiek.

Antolatzea erabaki dute, hortaz, eta *Batu sutondora* kafe tertulia izango da antolatu duten lehen ekimen publikoa. Ebete elkartearen laguntza izango da: egoera desberdinak nola kudeatu, beste herrietako esperientziak ezagutu... Martxoaren 5ean izango da, 18:30ean Agirre jauregiko Ispiluen gelan. .

## Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldiak 13. edizioaren deialdia zabaldu du

Euskal Herriko Nazioarteko Animazio Zinemaldiak 2019an izandako arrakasta eta gero, 2020an bere 13. edizioa ospatuko du, irailaren 3tik 6ra. Lanak maiatzaren 4rako bidali behar dira.

Animadeba Zinemaldiak, Animaziozko film labur lehiaketaz gain, film luzeez, musikaz eta bestelako jarduerez gozatzeko aukera eskainiko du.

Zinemaldiaren oinarriak web-orrian argitaratu dira eta izen-emate deialdia irekita dago. Hau, FilmFreeway plataformaren bitartez egin behar da. 13. edizioaren lehiaketa, nazioarteko animaziozko film laburrei irekita dago, bai Sail Ofizialean parte hartzeko eta baita Zuzendari Berriak Sailerako ere.

Oinarriak, animadeba.com zinemaldiaren web-atarian daude eskuragarri eta baita izen-emate orria betetzeko esteka ere. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: info@animadeba.com.

anima deba!



## Plan Especial de Revitalización Comercial (PERCO)

El Ayuntamiento de Deba, va a comenzar con los trabajos técnicos para elaborar el PERCO de la localidad. Debido a los cambios que se están dando en el sector los últimos años, es necesario un proceso de reacondicionamiento y mejora competitiva. Contará con la colaboración de la Asociación de Comerciantes y Hosteleros Debalai.

El plan será diseñado a partir de diferentes intervenciones participativas y abiertas a la ciudadanía y el sector comercial y hostelero de Deba con el objetivo de conocer la situación.

El ayuntamiento invita a la ciudadanía a participar en las diferentes actuaciones que se desarrollarán a partir de marzo (encuestas telefónicas, encuestas en la calle, entrevistas, grupos de trabajo del sector, etc.) en colaboración con la empresa consultora Ikertalde.

## El alcalde lleva a Madrid temas referentes al litoral

El pasado 24 de enero, el alcalde Gilen García estuvo en una reunión en el Ministerio de Transición Ecológica y Reto Demográfico del Gobierno español. Trataron temas que afectan al litoral de Deba y que son competencia del Ministerio.

Por ejemplo, trataron el tema del socavón que hay en el paseo de Solozabal. El Ministerio ha propuesto dos opciones: manteniendo la concesión en manos del Ayuntamiento, correspondería a este asumir el coste del mantenimiento. O, siguiendo el criterio general, hacer desaparecer ese mirador, en este caso el coste de la obra a realizar correspondería al Ministerio.

Se les informó sobre el plan especial del estuario. También se les ofreció información sobre el inventario de aves y los árboles de Casacampo. Así mismo, se les presentó el anteproyecto de trazado del río Maxpe-Artzabal (junto al ferrocarril) que se trabajó en la pasada legislatura. Se les informó también de los problemas con las dunas de la playa.

## Debako euskararen historia soziala berreskuratzeko lanak jarraipena izango du

Banatu berri da Debako Euskararen Historia Soziala biltzen duen dokumentala, Gaztelekuko gazteen bitartez, etxez etxe.
Frankismo garaira arteko historia eta testigantzak, neurri baten bederen, jaso diren arren, ez da lana amaitutzat jotzen. 2020-2022 aldian beste ikerketa-proiektu bat garatzea adostu da eta datozen urteetarako lan ildoa edo arreta, bereziki, hezkuntza sisteman jarriko da. Gai nagusia, beraz, Debako hezkuntza arloaren ikuspegi soziolinguistikoa aztertzea izango da.
Debako Itziarko ama ikastolaren sorrerari arretaz begiratuko zaio baina aldi historiko hori ikertzeko testuinguru zabalagoa hartuko da kontuan ikerketan.

Zehazki helburu zehatz hauek ezarri zaizkio ikerketari: batetik, aro garaikideko Debako hezkuntzako gertakari nagusiak testuinguratzea; Itziarko ama ikastolaren aurrekariak, sorrera eta garapena azaltzea; era berean kontuan hartuko da Ostolaza ikastetxe publikoak euskalduntze bidean egindako urratsak eta ikastolaren publifikazio prozesuaren ondorioz sortutako Luzaro eta Mendata ikastetxe publikoen ekarpena Debako euskararen biziberritzean.

Eskaera bat ere luzatu nahi zaie herritarrei, gai horien inguruan etxean gordeta izan ditzaketen dokumentuak eta irudiak (aktak, argazkiak, txostenak...) udaletxera ekar ditzaten, ikerketarako oso baliagarriak izango baitira. Dokumentu horiek udaletxeko euskara zerbitzuan digitalizatu eta momentuan bertan itzuliko dira.

### Formación antirrumores

Se han realizado tres sesiones para trabajar contra la existencia y propagación de rumores infundados, estereotipos negativos y prejuicios sobre las personas inmigrantes y la diversidad cultural.

### Iturri Ondoan 2020

Zazpigarren urtez egingo da Begiradak. Lanak jaso dira, diziplina desberdinetako artistak harremanetan jarri, eta ohi denez plazan erakutsiko dira ondoren. Bestetik, ekimen berri bat ere sortu nahi da, helduentzako kontaketa eta jazz musika uztartuko dituena.

### Deba-Kanbo senidetzea

20 urte beteko dira aurten bi herriak senidetuta daudela. Hori aintzat hartuz, bi herrietan egiteko ekimenak prestatzen hasi dira bi udalak.

### Grupo de lectura

Este año se vuelve a reunir el grupo de lectura. Está dirigido a mayores de 16 años y hay que inscribirse en la biblioteca Ostolaza.

### Euskararen Ginkana

Lehen aldiz egin da 2019 urte amaieran Debabarreneko Euskararen Ginkana. Oso lan ona egin zuten bertan parte hartu zuten Debako taldeek.

### Emakume Master Cup 2020

Se ha jugado en Deba la eliminatoria de mano parejas de la Emakume Master Cup. Una apuesta por el deporte femenino y no hegemónico.

ehbildu

## ESANDAKOA EGIN ETA EGINDAKOA ESAN

Horretan ari gara, baikor eta gogotsu. Ibilbide guztietan bezala, honetan ere zailtasunak eta zalantzak sortzen diren arren, pausoz pauso aurrera goaz, pixkanaka geroz eta seguruago.

Gobernu aktiboa eta irekia izan nahi dugu. Garbi dugu gardentasuna, parte hartzea eta gertutasuna direla gure oinarri eta ardatz, eta pixkanaka hitzak ekintzetara eramaten ari gara.

Azken hilabeteotan komunikazio baliabideak eta kanalak eguneratu ditugu, udalaren jarduna herritar orori helarazteko asmoz. Tartean, Osoko Bilkurak bideo bidez grabatu eta sarean zabaldu ditugu, Debaberri udal aldizkaria 4 hilez behin argitaratzeko konpromisoa hartu dugu, eta udalaren webgunea berrantolatzeko lanketan ere ari gara.

Parte hartze batzordea ere martxan jarri dugu, eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako zerbitzuaz baliatuz, ordezkari politikoen arteko lanketa burutzen ari gara. Horrez gain, II. Berdintasun Plana garatzeko hainbat topaketa egingo dira herritar eta emakume taldeekin otsaila bukaeran eta martxoan; Baserri Bideen Ordenantza auzokideen parte hartzean oinarrituz landu dugu; eta, herritarren bultzadaz, herriko memoria historikoa berreskuratzen ere ari gara. Etorkizun hurbilean hainbat parte-hartze prozesu abian jartzea da gure asmoa, hala nola, etxebizitzaren arazoa, Kultur-gunea, hondakinen mahaia edota galdetegia.

Helburu nagusia herritarren eta herriaren egoera orokorra hobetzea denez, azaroan aurkeztutako Gobernu Planean jasotako egitasmoak gauzatzen jarraituko dugu, argi baitugu zein diren gure baloreak eta zein gure norabidea. Esandakoa egin eta egindakoa esan.

Hacer lo dicho y decir lo hecho. En ello estamos, optimistas y con ganas. Como en todos los recorridos, a pesar de las dificultades y dudas que se plantean, vamos avanzando paso a paso, cada vez más seguras.

Queremos un gobierno activo y abierto. Tenemos claro que nuestros pilares principales son la transparencia, la participación y la cercanía, y poco a poco estamos llevando las palabras a los hechos.

En los últimos meses hemos actualizado los recursos y canales de comunicación con el objetivo de acercar la acción municipal a toda la ciudadanía.

También hemos puesto en marcha la comisión de Participación y, estamos trabajando el 2º Plan de Igualdad, la Ordenanza de Caminos Rurales y la memoria histórica en base a la participación de la ciudadanía.

Dado que el objetivo principal es mejorar la situación general de la ciudadanía y del pueblo, seguiremos llevando a cabo los proyectos recogidos en el Plan de Gobierno, ya que tenemos claro cuáles son nuestros valores y cuál es nuestra dirección. Hacer lo dicho y decir lo hecho.

## HUTSUNE HANDIA UDAL KUDEAKETAN

Zortzi hilabete igaro dira EH Bildu Udalean gobernatzen ari denetik, eta kezkagarritzat jo dezakegu gaur egungo egoera hartu diren hainbat erabaki ikusita.

Alkateak, teknikarien eta gainontzeko udal taldeen kontra, obra gelditzeko erabakia hartu zuen. Ondoren egindako Ezohiko Osoko Bilkura batean, DAren eta EAJ-PNVren aldeko botoekin, obra berriro martxan jartzea lortu zen. URAtik jasotako txostenek egiaztatu egin dute proiektuak bete egiten zituela eskatutako eskakizun guztiak. Gai horrek nolabaiteko mesfidantza sortu zuen eta horrek eragin du Debako udaletxean urbanismo teknikaririk ez egotea .

Azpimarratu nahi dugu ere zinegotzi bat liberatu dela eta komunikazio-aholkulari bat kontratatu. Erabaki horiek langile-gastuetako kapituluan igoera garrantzitsua ekarriko dute.

Itziarko Tokiko Entitate Txikiari dagokionez, aurreko legegintzaldian Osoko Bilkuran aldaketa bat onartu zen eta Aldundiari igorri zitzaion. 2019ko uztailean, Aldundiak espediente horri buruzko informazio gehiago emateko eskatu zion Udalari. Eskaera hori, urrira arte, ez zitzaien jakinarazi gainerako udal taldeei; gaur egun, oraindik, erantzuna emateko dago.

Aipatutako guztiak argi lagatzen digu EH Bilduren egungo gobernua nola ari den.

## GRAN VACÍO EN LA GESTIÓN MUNICIPAL

Transcurridos 8 meses desde que EH Bildu gobierna en el Ayuntamiento, la situación es preocupante, debido a la paralización y vacío existente.

El alcalde, en contra de los técnicos y del resto de grupos municipales, tomó la decisión unilateral de parar la obra del nuevo cementerio. En un pleno extraordinario celebrado posteriormente, con los votos a favor de DA y EAJ-PNV, se consiguió poner de nuevo la obra en marcha.

Como se ha podido comprobar por los informes de URA, el proyecto cumplía con los requerimientos solicitados. Este tema generó cierta desconfianza, lo que ha provocado un vacío de personal (arquitecto y aparejador).

Señalar también que se ha producido la liberación de un concejal y la contratación de un asesor de comunicación, lo que va a generar un incremento en gastos de personal importante.

En lo que respecta a la ELM de Itziar, en la legislatura anterior se aprobó en pleno una modificación y se remitió a la Diputación.

En el mes de julio de 2019, la Diputación solicitó al Ayto. una ampliación de información relativa a dicho expediente. Esto no fue comunicado al resto de grupos municipales hasta octubre, estando en este momento pendiente de contestación.

Estos temas nos pueden dar una idea de cómo está funcionando el actual gobierno de EH Bildu.

10 HILABETE

Badira 10 hilabete legegintzaldi berria hasi zenetik. Denbora honetan guztian lanean aritu gara Udalak aurrera egin dezan, eta baita aurreko legegintzalditik bukatu gabe gelditu ziren lanak bukatu eta aurrera begirakoak martxan jar daitezen.
Itziarko Auzo Udala da bukatu gabeko horien artean sar dezakegunetako bat. Hasiera gogorra eta malkartsua izan zuen arren, denok ondo baino hobeto ezagutzen ditugun arrazoiak direla eta, denborak gauzak bestela ikustera eraman gaitu.
Auzo Udalak denbora honetan egidako lana onartzea baino ez dugu. Aurretik izan genitzakeen uste eta iritziak denboraren poderioz aldatzen joan zaizkigu, eta bertako ordezkariekin izan ditugun kontaktuei esker, harremanak sendotu eta egoera normaltzearen aldeko apustu sendoa egin dugu.
Badituzte bertan egiteko proiektu eta asmoak, eta guk ere gure udalerriarentzat onuragarriak direla uste dugu. Horregatik izango gaituzte bidelagun.
Bestalde, gure hauteskude programa eskuartean izan zenutenok, badakizue jakin Debarentzat estrategikoak eta beharrezkoak iruditzen zaizkigun lan-ildoak zein diren. Hauek aurrera eramaten eta egikaritzen jarriko dugu gure indar guztia, behar-beharrezkoak direla sinestuta baikaude.
Debarentzat eta debarretzat lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu.

Han transcurrido 10 meses desde que empezó la nueva legislatura. Durante este tiempo hemos trabajado para que el Ayuntamiento siga adelante, y también hemos trabajado para que puedan finalizarse aquellos trabajos que quedaron pendientes de la legislatura anterior y se pongan en marcha nuevos proyectos.
La Entidad Local Menor de Itziar es uno de esos proyectos no terminados. Aunque su inicio fue duro, por razones obvias que todos conocemos, el tiempo ha hecho que nuestra postura con respeto a ella haya dado un giro.
Debemos reconocer el trabajo realizado por la Entidad Local Menor durante todo este tiempo. La opinión que teníamos sobre ella ha ido cambiando con el paso del tiempo, y gracias a los contactos que hemos mantenido con los representantes de la misma, hemos apostado firmemente por normalizar y reforzar las relaciones.
Tienen proyectos e ideas que quieren desarrollar, y nosotros creemos que son beneficiosos para nuestro municipio. Por eso nos tendrán como compañeros de viaje.
Por otro lado, en nuestro programa electoral presentamos proyectos que consideramos estratégicos y necesarios para Deba. Pondremos todo nuestro empeño en que estos puedan ejecutarse, pues creemos que son imprescindibles para nuestro futuro.
Tenemos el firme propósito de trabajar por Deba y los debarras.

# AGENDA

## OTSAILA

**18. 18:00.** Berdintasun plana lantzeko bilera irekia emakumeentzat. Ispiluen gelan.

**21. Inauteriak. 17:30.** Kalejira banda Gaztearekin. **18:30.** Haurrentzat jokoak. Kolore Anitzek antolatuta.
**22. Inauteriak.** Egunean zehar mozorro lehiaketa. **13:30-14:30** eta **18:00-20:00.** Photocall-a Udaletxeko arkupetan. **13:00.** Kalejira Debako Musika Bandarekin. **17:30.** Haurrentzat enbolatuak eta ponyak. Debadarrakek antolatuta.Foruen plazan. **20:30.** Mozorro lehiaketaren sari banaketa. "Que toque el de alau" txaranga. Foruen plazan. **00:00.** "Que toque el de alau" txaranga.

**23. 12:30-14:00.** Flysch beltza. Bisita gidatua.

**25. Inauteriak. 17:00.** Mozorro show-a eta txokolatada. Gaztelekuak antolatuta. Aldats pilotalekuan.
**25. 18:00.** Berdintasun plana lantzeko bilera irekia. Ispiluen gelan.

**26. 19:00-20:30.** Irakurketa tailerra. Najat El Hachmi-ren “La hija extranjera”. Ostolaza liburutegian.

**27. 19:00.** Hitzaldia. “Zer ari da gertatzen Iruña-Veleian?, Juan Martin Elexpuru. Burugorri aretoan (Itziar).

**28. 20:00.** Jazzez blai. Banden Lehia. Gaztetxean.

## MARTXOA

**2 (maiatzaren 4ra arte).** Animadeba film labur lehiaketarako lanak bidaltzeko epea.

**5: 18:30**. Batu sutondora kafe tertulia. Apakin Guraso Taldeak antolatuta. Ispiluen gelan.

**8:** Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. *Egun honen testuinguruan antolatutako egitarau osoa 16. orrialdean.

**17. 19:00.** 2017Ko Tene Mujika Beka irabazi zuen Kattalin Minerrek, Xabier Mendiguren editorearekin“Moio” liburua aurkeztuko dute. Ispiluen gelan.

**21. 22:00.** Jazzez blai. Banden Lehia. Gaztetxean

**25. 19:00-20:30.** Irakurketa tailerra. Katixa Agirreren “Amek ez dute”. Ostolaza liburutegian.

**26.** Hitzaldia. Pablo Solozabal: “El compositor maldito”. Arbil jubilatuen elkarteak antolatuta. Kultur Elkartean.

**28. 12:30:** Bandaren kontzertua bazkideen omenez.

**28. (apirilaren 26ra arte):** Kultur Loraldia.

debaberri

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

## UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

**GILEN GARCÍA BOYRA**
ALKATEA
HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA
alkatea@deba.eus

**ITZIAR IRIZAR BERISTAIN**
ALKATEORDEA
OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK - BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA
itziaririzar@deba.eus

**ARITZ LARRAÑAGA UNANUE**
ALKATEORDEA
BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIA
aritzlarranaga@deba.eus

**ANTXON ETXEBERRIA LARREA**
HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA
antxonetxeberria@deba.eus

**NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA**
EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA, MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)
nereaarrizabalaga@deba.eus

**ANTXOKA ELORZA ALTUNA**
OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA
antxokaelorza@deba.eus


Portu kalea, 1
+34 943 192 840
info@deba.eus

Debako Udala

Debako Udala · @DebakoUdala · Debako Udala




**Elene Turrillas Rodriguez (Deba, 2001)**

**2019ko abendua eta urtarrila artean Sortzeko gaitasuna izeneko erakusketa egin zuen Elene Turrillasek Agirre jauregian. Sortzeko mugarik ez dagoela ongi adierazten du gazte debarrak, egiten dituen margoekin. Pozik agertu da Deban erakusketa egin izanagatik.**

### Noiz eta nola hasi zinen margotzen?

Ikastolan txikitatik beti gustatu zait margotzea. Argazkiak kopiatzen nituen eta poliki-poliki honaino ailegatu naiz. Betidanik egon naiz oso gustura margotzen.

### Beti erretratuak? Zergatik?

Hasieran agian objektuak margotzen nituen, baina oso azkar hasi nintzen erretratuak egiten. Asko gustatzen zait erretratu horiek egitea, aurpegiak margotzea. Eta gainera, enkarguak jasotzen ditut, ba...

### Nori egiten dizkiezu erretratuak?

Ba hasi nintzen margotzen familiako jendea. Geroago Eibarko institutuko lagunak eta bukatzeko Debako lagun eta ezagunak. Baina lehen esan dizudan bezala, enkargu pertsonalak jasotzen ditut, edozein pertsonarentzat. Nirekin harremanetan jarri eta listo!

### Egin dituzunetatik zein da gehien gustatzen zaizuna?

Politak marrazki asko daude. Niri pertsonalki amatxorena gustatzen zait. Oso polita geratu da.

### Jendeak zer esaten dizu bere erretratua ikustean?

Nik uste dut jendea harrituta geratu dela. Jende gutxik zekien nik margotzen nuenik. Hitz politak jaso ditut eta hori niretzat zoragarria da.

### Gustatu zaizu erakusketa Deban egitea?

Bai, asko. Jende asko joan da eta oso polita geratu da. Koadro asko zeuden eta dezente saldu ditut.

### Zer esan dizu jendeak? Kalean ezagutzen zaituzte?

Puf... gauza asko, polita izan da eta gainera telebistan irten naiz, Gure Kasa programan. Eta orain askoz ere ezagunagoa naiz.